

KATALANAREN MUGAK

# Cretas ez han, ez hemen

Abuztu honetan, ez Hawaii ez Bonbai, Cretasen izan gara oporretan. Kasu, Greziako Kretan ez, Teruelgo probintzian den Cretas (edo Queretes) herrian baizik, Matarraña (edo Matarranya) izeneko eskualdean. Parentesi artekoa ikusita, igarriko zenioten zerbait gertatzen dela han, nolabaiteko konfliktoa dutela, gurean ere (ipar zein hego) ezaguna dena: bi hizkuntza dituzte. Konflikto hitza aipatu dut, nahita, eta hemen dator azalpena.

ARITZ GALARRAGA



LEHEN ARGAZKIA. Cretas (Teruel) eta Arnes (Tarragona). 618 biztanle lehenak, 510 bigarrenak. Lau kilometro eskas batetik bestera, ez dute bestelako herrigunerik gertuago. Cretas: bertako kaleetatik pasieran, ultramarinos batera iritsiko zara, egunkariren bat erosteko asmoz. Erakuslehoan *Heraldo de Aragón*, *El País*, *La Razón*, *Abc*, juxtu-juxtu *La Vanguardia* borboizalea. Aurrera egin eta, bide guztien antzera, Erromara ez, herriko plazara, Plaza España aterako zara. Hantxe duzu, ongi etorria egiteko, pintaketa bat: Arriba España. Kalean behera segi, eta herria bitan banatzen duen errepeidea aurkituko duzu, Avenida Generalísimo. Arnes: superrean sartu zara, eguneko notiziak leitze-ko intentzioarekin, eta hantxe dituzu *Avui*, *El Punt*, juxtu-juxtu *La Vanguardia* borboizalea. Paseatuko zara, noski, herriko kaleetan zehar, Lluís Companys, Onze de setembre, Plaça Catalunyaara ailegatu arte. Bazter batean dago idatzia “Els catalans no són espanyols” –akaso espainiar batek idatzia, bestela “no som” idaztea baita logikoena—. Hotel bat ireki berri dute, gainera, herriaren tamainarekin alderatuta,



Goian, Teruelgo Queretes edo Cretas herriko plaza eta kale bat. Ezkerrean, Tarragonako Arnes herria. Lehenak 618 biztanle ditu eta bigarrenak 510. Lau kilometro daude bi herrien artean.

## Franja de Ponent

Izendapen horren baitan bil-tzen dira Aragoiko lurretan (Huesca, Zaragoza nahiz Teruelen) dauden eskualde katalan hiztunak. Lau dira guztira: Ribagorça, Llitera, Baix Cinca eta Matarranya. 50.000 inguru hiztun. Katalanak ez du ofizialtasunik, instituzioen aldetik inolako babesik ez du jasotzen, eta herritarrek ere baztertuta dute jarduera publikoan. Eskoletan irakasgai gisa ikas daiteke soilik. Beste hitz batzuekin esanda: desagertza kondenatua dagoela.

erraldoia. Tamaina horrexegatik –eta beste gauza batzuegatik– ez balitz, Israelek han jarritako etxe zuri prefabrikatu bat dela imajinatuko genuke. Hotel atarian, etengabekoa da bikote beltzaren klonikoen sartu-irtena.

### Bigarren argazkia

Cretas, atzera, bertan izan baikara oporretan. Bandoak esnatu gaitu, goizean goiz: “*Se avisa de que se cortará el agua ahora mismo*”. Kontxo, ibaian kendu beharko gaueko izerdia. Baina jendea ikusten duzu kalean, adinekoak horietarik gehienak, haur batzuk ere bai, eta zera arraro batean ari direla entzuten duzu, betiko kastillanoa ez den hizkuntza batean. Kurioski, aurreko egunean, lau kilometro eskas hara-

go, Arnesen, entzun duzun hizkuntza berberean. Tabernan sartu, kafesnea eskatu, eta hantxe hurbilduko zaizu Tio Gerardo, adar jotzen. Kastillanoz hasiko zaizu, zuk katalan traketsean ihardetsi, eta barkamena eskatuko dizu: “*Es que pensava que ereu castellans*”. Behin solasa abiatuta, ausartuko zara zu ere, eta galdera egingo diozu. Ez da isilik geratzekoa: “Behin, kanpoan, nongoa nintzen galdetu zidaten. Erantzun nien katalana. Katalana, zein herritakoa? haien arrapostua. Queretes (sic) herrikoa, nik. Orduan ez haiz katalana, esan zidaten. Horrelaxe ikasi nuen nongoa ez nintzen, behintzat”.

### Ondorio bat

Bada ibaitxo bat, Algars deiturikoa, Cretas eta Arnes, bi herriak banatzen dituena. Sikua oso, sasoi honetan, egingo nuke oinez ere iragan daitekeela. Baina, nago, ibaitxo horrek dakarrena baino ur handiagoek egiten dutela handi lau kilometroko distantzia. ■

Babeslea: IVAP

“IVAPen misioa da Euskadiko Herri Administrazioetako pertsonak eta antolakuntza hobetzea, administrazio eraginkorragoa, eraginkorra eta elebiduna lortzeko asmoarekin, eta zerbitzu publikoko zenbait balio komun oinarri hartuta. Horretarako, honako hauek egingo ditu:



- Euskadiko Herri Administrazioen zerbitzura dauden langileei etengabeko prestakuntza eman eta langileak hautatu.
- Euskararen erabilera administrazioan normalizatu dadin sustatu.
- Itzulpen ofizialak eta lege- eta administrazio-erlako euskarazko terminologia.
- Hizkuntzari, legerari eta antolamenduari buruzko aholkularitza, eta antolaketa eta kudeaketaren inguruko ikerkuntza.”

